

DiKomA Proiektua. Hizkuntza-ekologiaren Diskurtsoaren bidez Komunitatea Ahalmentzen laguntzeko Proiektua

J. Inazio Marko Juanikorena

UPV/EHU – Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

inazio.marko@ehu.eus

Beatriz Akizu

Eusko Ikaskuntza

beatriz.akizu@eusko-ikaskuntza.org

Laburpena. *DiKomA Proiektua* udalerrri mailan hizkuntz ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta horren bidez hizkuntz komunitatearen sistema ahalmentzeko 2012 eta 2014 bitartean burututako ekintza-iker-kuntza erako ikerketa proiektua izan da. Artikulu honetan proiektuaren ezaugarriak, metodologia eta emaitza nagusiak azaltzen dira. Ikerketa, ekologiaren metafora jaso eta hizkuntzen prozesu sozialak bere ingurunearekin lotuz garatutako marko kontzeptualaren baitan kokatzen da, Haugen (1972), Fill (2001), Resinger (2006), Bastardas (2005, 2009), Couto (2007, 2009), Lechevrel (2008,) Steffensen & Fill (2014), edota beste hainbatek landutakoaren ildotik. Fase pilotoaren esku-hartzeak Oñati, Erreterria, Zumaia eta Bermeo herrietan burutu dira, eta balioztatze saioak egin dira GFAko, Ikastolen Elkarteko eta UEMAko teknikariekin, guztira 22 mahai osatu dira eta 153 pertsonak hartu dute parte saioetan. *DiKomA Proiektuaren* emaitza nagusia *EkoLingua Solas-jokoa* izena hartu duen mahai-jokoa izan da. Joko hau, hizkuntza-ekolo-giaren ezagutzan oinarrituta elkarrizketak pizteko, arrazoibideak lantzeko eta herritarrak argudio berriez jabetzeko baliabidea da, mahai-joko gisa egituratu den eskuhartze-tresna ludikoa. • **Hitz gakoak:** *Hizkun-tza-ekologia, diskurtsoa, komunitatea, ahalmentzea, ekintza-ikerkuntza, esku-hartze parte-hartzailea.*

Abstract. The DiKomA Project was an activity-based research project carried out from 2012 to 2014 to socialize a discourse of language ecology and use it to empower the system of the language community. This article explains the project's characteristics, methodology and main results. The research follows along lines developed in Haugen (1972), Fill (2001), Resinger (2006), Bastardas (2005, 2009), Couto (2007, 2009), Lechevrel (2008,) Steffensen & Fill (2014) and others, assuming a conceptual framework based on adopting an ecological metaphor and linking social language processes to their environment. Pilot experiments were carried out in the towns of Oñati, Erreterria, Zumaia and Bermeo, and validations were carried out with staff of GFA, the Ikastola Association and UEMA, with the participation of twenty-two groups and 153 individuals. The main result of the project has been the development of a board game called the EkoLingua Talking Game, which serves to stimulate discussions based on knowledge of language ecology, cultivate rational thinking and help citizens to understand new arguments through an entertaining participatory exercise structured as a board game. • **Key words:** *Language ecology, discourse, community, empowerment, activity-based research, participatory involvement.*

1. PROIEKTUAREN JATORRIA, KOKAPENA ETA HELBURUAK

I
DiKomA Proiektua Eusko Ikaskuntzak eta Soziolinguistika Klusterrak sustatu eta hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta hizkuntza-komunitatearen sistema ahalmentzeko xedearekin 2012 eta 2014 bitartean garatu den proiektua da. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñati, Errenteria, Zumaia eta Bermeoko udalerrien babesa eta parte-hartze zuzena izan du.

Proiektuaren jatorria 2011n egindako hainbat hausnarketa-ekitaldietan eta horietatik ateratako ondorioetan koka daiteke. Batetik, UEMAK bere 20 urteetako ibilbidearen hausnarketaren harira 2011ako apirilaren 14an *Hizkuntza-ekologia eta Lurralde Euskaldunak* izenburupeko Topaketa antolatu zuen. Topaketa horren ekitaldi osagarri moduan, apirilaren 13en *Hizkuntza-ekologiari buruzko Disziplinarteko Mintegia* burutu zen Andoaingo Kultur Parkean, Albert Bastardas (2011) irakaslearen eta euskalgintzako beste hogeita bost eragile esanguratsurekin. Bi ekitaldi horietan, eta bereziki mintegiaren focus-taldeetan jasotako ondorioen artean (Marko eta Uranga, 2011, 2014), hizkuntza-ekologiaren formulazio teoriko-kontzeptualean sakontzearen, prozesu parte-hartzaileen bidez gaiaren sozializaziorako dibulgazioa egitearen eta horretarako ikerketa lerroak zabaltzearen proposamenak azaleratu ziren. Urte berean, Soziolinguistika Klusterrak UPV/EHUren udako ikastaroetan *Hizkuntza-ekologia: teoriatik praktikara* izenburupeko ikastaroa antolatu zuen¹, eta bertan ateratako ondorioen artean, gaiari buruzko corpus teoriko egokitua eraikitzea eta hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren sozializaziorako transferentzia-bideei buruzko ikerketa aplikatua lantzen hastearren beharra azpimarratu ziren.

Ekitaldi horietan ondorioztatutakoaren jarraipen gisa, eta *Eusko Ikaskuntzak* sustatuta, 2011 urtearen amaiera aldera “*Udalerrri Euskaldunetan hizkuntz ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko esku-hartze parte-hartzaileerako*” proiektu proposamena itxuratzen hasi zen, bi xede edo ardatz nagusirekin: 1) Udalerrri euskaldunetan euskararen mintza-ekosistema naturalaren iraunkortasunerako hurbiltze teorikoa lantzea, eta 2) Udalerrri euskaldunetan herritarrek hizkuntza komunitate gisa osatzen duten sistema ahalmentzeko herritarrekin prozesu parte-hartzaileak bideratzea.

Bestalde, 2012 urtearen hasieran eta Errenteriako Udalaren eskaerari erantzunez *Soziolinguistika Klusterrak* “*Errenteriako udalerrian diskurtso berrituaren bitartez euskal hiztunen komunitatea trinkotzea*” xedea zuen

Zer da edota zer ulertzen dugu hizkuntzaren ekologiak?

proiektu proposamena prestatu zuen, hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren marko orokorra ardatz hartuta eta, horren baitan, Errenteriako udalerriri egokitutako interbentzio egitasmoa diseinatzeko eta aplikatzeko.

Jatorri ezberdina izan arren, bi ekimen horien arteko antzekotasun handia eta potentzialitatea kontuan hartuz, 2012an *Eusko Ikaskuntzak* eta *Soziolinguistika Klusterrak* bi aurre-proiektuak bat egitearen bideragarritasuna aztertu eta bi asmoren arteko sinergia eta osagarritasuna bilatzen zuen proiektu berria diseinatu zuten. Proiektu horrek «*Udalerriri Mailan Hizkuntz Ekologiaren Diskurtsoa Sozializatzeko eta Hizkuntz Komunitatearen Sistema Ahalmentzeko Esku-hartze Proiektua*» izena hartu zuen, «*DiKomA Proiektua*», *Diskurtsoa-Komunitatea-Ahalmentzea* hitz-gakoetan oinarritutako identifikaziorako izen berezi laburtuan. Proiektu bateratu horren xede nagusia horrela definitu zen:

Udalerriri mailan herritarrekin esku-hartzea bideratzea, hizkuntza-ekologiaren ezagutza hedatuz diskurtso berri(nda)tu bat sozializatzeko eta horren bidez herritarrek hizkuntz komunitate gisa osatzen duten sistema trinkotzen edota ahalmentzen laguntzeko.

DiKomA proiektua hiru fasetan gauzatzea aurreikusi zen. Lehena, oinarriak finkatzearen fasea (materialak, tresnak, diagnosia, corpora, sareak, ..); bigarrena, herrietan diskurtsoaren sozializaziorako esku-hartze parte-hartzailerako esperimentazioaren fasea; eta hirugarrena, emaitzen azterketen, balorazioen eta ondorioen zein produktuen kaleratzearen fasea.

Landa-lana eta esperimentaziorako herriei dagokionez, proiektua lau udalerritan gauzatzea aurreikusi zen: alde batetik, UEMAko hiru udalerritan (Bermeo, Oñati eta Zumaia), hau da, euskal hiztun ehunekoa %75 baino handiagoa duten udalerrietan, eta bestetik, ezaugarri soziolinguistiko oso desberdina duen eta handiagoa den laugarren udalerriri batean (Errenterian), alegia, euskara-gaitasuna populazioaren %40 azpitik duen udalerriri batean. Herrien arteko ezaugarrien alde horrek, esku-hartze prozesuaren garapena izaera ezberdineko udalerrien artean erkatzeko aukera interesgarria zabaldu du, eta ikerketa-lan honi gainbalioa erantsi dio.

2. HIZKUNTZAREN EKOLOGIA

I Zer da edota zer ulertzen dugu hizkuntzaren ekologiak? Hizkuntza-ekologiak, hizkuntzen gizarte diskurtsoak eta prozesuak hizkuntzaren beraren ingurunearekin erlazionatzen dituzten azterketen alorrean duela hamarkada batzuk garatzen hasi zen hurbilpen kontzeptual bati

egiten dio aipamena. Hurbilpen horrek biologiarekin lotutako fenomenoak aztertzeko zein gizarte-garapeneko arazoetan historikoki erabili izan den ekologia kontzeptuaren metafora hartu eta hizkuntzen gizarte prozesuen azterketara zabaldu eta egokitu du. Era horretara, kontaktuan diren hizkuntzen artean eta hizkuntzen eta haien ingurumenaren artean ematen diren interakzioak aztertzen dituen diziplinatzat aurkezten da ekolinguistika: «*Language ecology may be defined as the study of interactions between any given language and its environment /.../ The environment of a language is the society that uses it as one of its codes. Language exists only in the minds of its users, and it only functions in relating these users to one another and to nature, i.e. their social and natural environment*» (Haugen, 1972: 325).

Heiner Haugen (1972) ekosistema bereko espezieen eta habitataren beraren interakzioaren ideia eta hizkuntzen eta hizkuntza horien gizarte eta ingurumen ekosistemen interakzioaren ideia artean ezar zitekeen antzekotasunari aipamena egiteko hizkuntza-ekologia terminoa erabili zuen lehenengo egiletzat jotzen da. Geroztik egile askok (Bastardas, 2005, 2009, 2011; Calvet, 1999; Couto, 2007, 2009; Creese et al., 2010; Fill, 2001; Mackey, 1976, 1994; Mühlhäusler, 2003; Steffensen, 2014...) ikuspuntu hori jaso eta haren kontzeptualizazioan sakondu dute. Resingerek (2006) azaltzen duen bezala, ekologiaren printzipioa hizkuntzen azterketara ireki zen bi norabide hauetan: hizkuntza-ekologia eta linguistika ekologikoa. «*La primera investiga las interrelaciones de una o varias lenguas con su entorno lingüístico, cultural, social, geográfico, natural, etc, y la segunda reflexiona sobre la estructura y el contenido de las lenguas desde un punto de vista ecológico, es decir, en cuanto a su aptitud para transmitir eficazmente una realidad que tenga en cuenta nuestra dependencia de la naturaleza en integración en sus procesos*» (98 orr.).

Definizio bakar bat baino gehiago daude ekolinguistika kontzeptuari buruz. Zenbait egilek ikuspegi desberdinak garatu dituzte eta corpus teoriko plural bat, eboluzionatzen ari dena, sortu dute, Lechevrek (2008) ulertzen duen bezala hau proposatzen duenean: «*de ne pas prendre l'écoulinguistique comme un 'terme' théorique construit, mais comme un 'concept' qui ne cesse de se modifier à mesure que se construit le cadre théorique*» (26 orr.). Azpimarratzekoak dira ekolinguistika gaiaren egoeraren berrikuspenerako Fill-en (2001, 2014) bi lan garrantzitsu. Lehenak *Ecolinguistics: state of the art 1998* izenburua du, gaiaren garapenaren hogei-ta hamar urte laburtzen ditu eta bertan bloke osagarriak diren ekologiaren erabilera metaforikoak eta ez-metaforikoak bereizten ditu, lehen aipatu ildotik, batetik ekologia linguistikoa eta bestetik linguistika eko-

**Kontaktuan
diren hizkuntzen
artean eta
hizkuntzen eta
haien
ingurumenaren
artean ematen
diren
interakzioak
aztertzen dituen
diziplinatzat
aurkezten da.**

**Ekolinguistika
hizkuntzaren eta
ingurumenaren
arteko erlaziotzat
definituz gero,
ingurumenaren
ideia ulertzeko
beharrezkoa da
ideia hori
ekosistema
kontzeptuan
integratzea.**

logikoa. Steffensen-ekin batera idatzitako bigarren azterlanean *-Ecolinguistics: the estate of the art and futures horizons* (Steffensen & Fill, 2014), egileek ekologia linguistikoaren kontzeptualizazioan garatzen joan diren bide desberdinak gogora ekartzen eta deskribatzen dituzte, ekologia sinbolikoa, ekologia naturala, ekologia soziokulturala eta ekologia kognitiboa ikuspegiak bereizten dituzte eta ekolinguistika hizkuntzaren zientzia “naturalizatu” gisa birdefinitzea proposatzen dute era honetara ulertuta: «*First of all, for metatheoretical reasons, a naturalised model is more satisfactory /../ Language, socioculture and behaviour are deeply and irreversibly intertwined with nature, or rather: linguistics and sociocultural resources and behaviours express species-specific ways of being nature. If ecolinguistics adopts a naturalised model, compatible with knowledge about human ecology and biology, it leaves behind formal and functional model of language that depend on the ontological reification of language. Second, a naturalised model of language can integrate the four ecological approaches. The rationale for this claim is that generalizing the four parallel domains of ecological linguistics —the symbolic, the natural, the sociocultural, and the cognitive— leads towards understanding language in its full ecological complexity*» (19 orr.)

Honorio do Coutoren (2007, 2009) arabera, ekolinguistika hizkuntzaren eta ingurumenaren arteko erlaziotzat definituz gero, ingurumenaren ideia ulertzeko beharrezkoa da ideia hori ekosistema kontzeptuan integratzea, ekosistematzat hartuta lurralde zehatz bateko organismoen multzoa eta haien harremanak, bai elkarren artekoak zein lurralde-arekikoak. Egile horrek hiru ekosistema bereizten ditu: hizkuntzaren ekosistema edo ingurune naturala, ekosistema mentala eta ekosistema soziala. Garrantzi berezia ematen dio hizkuntzaren ingurune naturalari, gainerakoen oinarriak edo funtsak finkatzeko lagungarri gisa eta hizkuntzaren funtsezko ekosistema deitzen dio. Ekosistema hori populazio batek (P) osatzen du, lurralde (L) jakin batean elkarrekin bizi diren eta beren hizkuntza (H) hitz egiten duten biztanleenak. Coutok (2009) eskema horretan defendatzen du lurralderik gabe populaziorik ez dagoela eta populaziorik gabe hizkuntzarik ez dagoela; hori horrela, hizkuntza lotzen da beti lurralde jakin batean bizi behar duen populazioarekin; hizkuntzaren ekosistema naturala da: «*..parto da Idoia de que a lingua faz parte de uma imensa teia de relações, vale dizer, um imenso ecossistema, constituído pelo tripé lingua (L), população (P) e território (T). Para que exista L, é preciso que pré-exista um T em que P viva e conviva. Essa convivência faz emergir a necessidade de interação entre os diversos membros de P, o que acaba levando á emergência de L*» (2007: 87).

Albert Bastardasek jauzi handia eman du hizkuntzen ekologiari buruzko teoria garatzeko kontzeptualizazioan. Bastardasek ikuspegi ekolinguistikoaren barruan paradigma aldaketa globalago bat planteatzen du esparru teoriko holistiko baterantz, errealitatearen ikuspegi sistemiko batez eta konplexutasunaren teoriaren planteamenduetatik zentzu honetan, «*en aquesta nova etapa 'glocal' -global i local alhora- som cridats a explorar noves visions i nous principis, a desenvolupar perspectives complexes i no dicotòmiques que parteixin d'un pensament en "i" i no pas en "o"*» (Bastardas, 2009: 130). Iraunkortasunaren ideia jaso eta garapen iraunkorra kontzeptua aztertzen du soziolinguistikaren alorrera eramanez hizkuntzen garapen iraunkorraz hitz egiteko kontaktuan dauden hizkuntza handien eta txikien arteko glotofagia-mendekotasun eta hizkuntz-gatazka egoerak gainditzeko planteamendu gisa: «*podríem dir que la 'sostenibilitat lingüística' fóra un procés de transformació gradual de l'actual model d'organització lingüística de l'espècie humana, que tindria l'objectiu d'evitar que la bilingüització o políglotització col·lectiva dels éssers humans hagués de comportar necessàriament l'abandonament de les llengües pròpies dels distints grups culturals /.../ Igual com el desenvolupament sostenible no nega ni el desenvolupament ni la cerca de la millora material de les societats humanes però alhora vol el manteniment de l'equilibri ecosistèmic amb la natura, la 'sostenibilitat lingüística' accepta la políglotització i la intercomunicació entre els grups i les persones, però alhora reclama la possibilitat de la continuïtat i el ple desenvolupament dels grups lingüístics humans*» (Bastardas, 2004a: 6). Ikuspegi horretatik, eta ekosistema linguistikoen konplexutasunari erantzuteko eta tokian tokiko hizkuntza gutxituen garapen iraunkorra bermatzeko, Bastardasek zenbait printzipio proposatzen ditu, besteak beste, *subsidiariotasun printzipioa*, tokiko hizkuntza batean egin daitekeena hizkuntza global batean ez egitea; *políglotizatze printzipioa*, beste hizkuntza globalago batzuk menderatzea kanpo harremantako funtzioetarako, eta *funtzio eskusibo printzipioa*, tokiko hizkuntzari esparru eta funtzio lokal berariazkoak eta eskusiboak esleitzea. Egileak azaltzen duen bezala, funtzio horiek, katalanaren kasuari dagokionez, «*cal visualitzar per al català una societat on sigui la llengua intergrupala normalment usada, on guanyi parlants que el tinguin com a llengua inicial, on ocupi la majoria de les funcions 'locals' quotidianes de les empreses i organitzacions, on tingui un sistema de mitjans de comunicació en què hi pugui ser prevalent o molt ben representat, i, en definitiva, una societat políglotitzada on una distribució clara de funcions apliqui el principi general de la subsidiarietat lingüística: per defecte, tot el que es pugui fer amb la llengua 'local' no ho ha de fer una llengua més 'global'*» (Bastardas, 2009: 132).

**Iraunkortasunaren
ideia jaso eta
garapen
iraunkorra
kontzeptua
aztertzen du
soziolinguisti-
karen alorrera
eramanez
hizkuntzen
garapen
iraunkorraz hitz
egiteko
kontaktuan
dauden hizkuntza
handien eta
txikien arteko
glotofagia-
mendekotasun
eta hizkuntza-
gatazka egoerak
gainditzeko
planteamendu
gisa.**

Hizkuntza-ekologiaren helburua, beraz, hizkuntzen iraunkortasuna bermatzea da, bere ekosistema (habitat) soziopolitikoaren eta kulturalaren bideragarritasuna bermatzea. Alde horretatik ezinbestekoa da hizkuntzaren iraunkortasunerako funtsezkotzat hartzen diren funtzio linguistikoak identifikatzea eta funtzio horiek banatzeko lehentasunak ezartzea.

Hizkuntza-ekologiaren helburua, beraz, hizkuntzen iraunkortasuna bermatzea da, bere ekosistema (habitat) soziopolitikoaren eta kulturalaren bideragarritasuna bermatzea. Alde horretatik ezinbestekoa da hizkuntzaren iraunkortasunerako funtsezkotzat hartzen diren funtzio linguistikoak identifikatzea eta funtzio horiek banatzeko lehentasunak ezartzea.

Hizkuntza-kontaktu egoeran gertatzen den eraginari dagokionez, bada-go kontzeptu nagusi bat, espazio zehatz batean kontaktuan diren hizkuntzen arteko harremanak arautzen dituena. **Berdintasunaren printzipioa** da. Printzipio horren arabera, kontua ez da hizkuntza guztiek tra- taera bera jasotzea, baizik eta, aitzitik, desberdintasun egoeran dauden hizkuntzak beste era batera tratatu behar direla ekitatea lortze aldera. Hor dute zentzua Albert Bastardasek proposatutako hiru printzipioek.

3. PROIEKTUAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA DISEINU METODOLOGIKOA

1 a. Enfoke metodologikoa

Gorago azaldu moduan, DiKomA Proiektuaren xede nagusia ‘**diskurtsoa**’, ‘**komunitatea**’ eta ‘**ahalmentzea**’ hitz-gakoen inguruan gorpuztu da, honako formulazio honekin: *Udalerri mailan herritarrekin esku-hartzea bideratzea, hizkuntza-ekologiaren ezagutza hedatuz diskurtso berri(ndar)tu bat sozializatzeko eta horren bidez herritarrek hizkuntz komunitate gisa osatzen duten sistema trinkotzen edota ahalmentzen laguntzeko.*

Planteatutako xede horrek ikerketaren izaeran eragina izan du hasiera hasieratik modu zuzenean, bertan hiztun komunitatea ahalmentzen laguntzeko herritarrekin esku-hartzea bideratzea planteatzen baitzen. Hau da, ikerketak *ahalmentzea* bezalako balioetan oinarritua eta *esperimentazio praktikoa* izango zuen moldekoa izan behar zuen. Eta horrek suposatzen zuen, batetik, jabekuntza prozesua bideratzeko behetik gorako ezagutza-ekintza bultzatu eta sistematizatu behar zela, kolaborazioaren paradigmaren oinarrituta agente ezberdinak asmoz eta jakitez uztartzeko dinamikak abian jarri; bestetik, esperimentazioa gauzatzera iristeko metodologia aplikatua prestatu eta diseinatu behar zela; eta azkenik, esperimentazioaren eta esku-hartzeko sortutako tresna metodologikoen egokitasuna balidatzeko sistematika sortu behar zela, indarguneak zein ahuleziak identifikatzeko eta ondorioak atera ahal izateko.

Hori horrela, proiektuaren xede nagusiaren garapen gisa honako helburu hauek aurreikusitakoak ziren DiKomA Proiektuaren abiapuntuan:

1. Esperimentaziorako gune izango ziren herrietako hiztun komunitatearen pertzepzio eta diskurtso-ahalmenaren diagnostikorako lehen hurbilketa egitea.
2. Hizkuntzen ekologiari buruzko corpus teoriko-kontzeptual egokitua osatzea.
3. Esku-hartzea ahalbideratzeko diseinu metodologikoa prestatu eta egikaritzea.
4. Esku-hartzearen ondorioak aztertzeko eta parte-hartzaileen pertzepzio eta diskurtso baliabideetan izandako eragina ebaluatzea.

Proiektuaren diseinu metodologikoari dagokionez, hiru gako nagusiren inguruan egituratu da: Ikerketa Kooperatiboa, Diseinu Emergentea, eta Design Thinking metodologia.

Kooperatiboa. Proiektuaren izaera eta helburuak kontuan hartuz, ikerketaren garapenerako metodoari dagokionez, hobetsi den ikuspegi nagusia kualitatiboa eta aplikatua izan da, *Ikerketa Kooperatiboa* deritzan enfokean oinarritutakoa. Ikerketa kooperatiboa ekintza-ikerkuntza metodologiaren modalitate bat da. Ekintza-ikerkuntzaren ohiko espiral moduko eskema (planifikatu, egin, behatu, hausnartu) aplikatzen du, baina bere ezaugarri nagusia da erakunde ezberdinetako pertsonekin osatutako taldean zentratzen dela eta enfasia ikertzaileen eta eragile 'praktikoen' artean eraikitako kolaborazioan eta lan bateratuan jartzen duela bereziki (Bausela 2003, Heron 1996, Reason 1999, Sandin 2010). Desgagné-k (1997) dioen moduan, «*la recherche collaborative suppose la co-construction d'un objet de connaissance entre un chercheur et des praticiens*» (383 or.). Gure kasuan, DiKomA Ikerketaren Garapen Taldea osatu duten partaideak izan dira: unibertsitateko ikerlariak, erakunde sustatzaileak, inplikaturako administrazioetako teknikariak (eta arduradun politikoak hasierako fasean), eta adituak komunikazioan edota parte-hartze prozesuetan.² Eta bigarren maila batean, herrietako mahaiak dinamizatzen aritu diren eta balorazioetan parte hartu duten herritar eragileak.

Emergentea. Ikerketaren diseinua, *gainerakor* edo *emergentea* (Erlandson eta Harris 1993) eta *flexiblea* (Mendizabal 2006) deritzan diseinu motaren ikuspegitik planteatu da, hau da, prozesu metodologiko bat non diseinua ez den erabat lotzen ikerketa hasi haurretik, «... *sino que emerge al tiempo que se recogen los datos, se lleva a cabo el análisis preliminar y pasa a describirse de modo más completo el contexto*» (Ferrero, 2003, 352 or.). Gure kasuan, proiektuaren hasieran ez zegoen aurreikusita nolako izango zen azken emaitza edota produktua, ez eta joko bat izango

**DiKomA
Proiektuaren
xede nagusia
'diskurtsoa',
'komunitatea' eta
'ahalmentzea'
hitz-gakoen
inguruan
gorpuztu da,
honako
formulazio
honekin:
Udalerrri mailan
herritarrekin
esku-hartzea
bideratzea,
hizkuntza-
ekologiaren
ezagutza hedatuz
diskurtso
berri(ndar)tu bat
sozializatze eta
horren bidez
herritarrek
hizkuntz
komunitate gisa
osatzen duten
sistema
trinkotzen edota
ahalmentzen
laguntzeko.**

**DiKomA
proiektua hiru
fasetan garatu
da, hiru urtetan
zehar.**

- 1) Lehena,
DiKomA
Oinarriak
(2012). Ulertu
eta Definitu.**
- 2) Bigarrena,
DiKomA
Interbentzioa
(2013). Sortu eta
Prototipatu.**
- 3) Hirugarrena,
DiKomA analisia
eta proiektzioa
(2014). Balidatu
eta Zabaldtu.**

**Fase honen
emaitza nagusia
proiektutik
sortutako azken
produktua izan
da: EkoLingua
Solas-jokoa, bere
Gida eta
Materialekin.**


zenik, soilik esku-hartze bat izango zela. Jokoarena prozesuan zehar agertu den ikuspegi berria izan da.

Diseinatzailea. Aurrekoarekin lotuta, ikerketaren prozesua garatzeko erreferentziatzen hartu den beste metodologia *Design Thinking* edo *Diseinu Pentsamendua* deritzan berrikuntza metodoa izan da. Design Thinking arazo edota egoera konplexuen aurrean hurbilpen sortzailea erabiltzen duen eta prototipoen bidez soluzio berritzaileak garatzeko bidea ematen duen metodoa da, «*a specific method to solve complex problems and to generate innovative solutions, based on a user-centered approach with multi-disciplinary teams*» (Thoring & Müller, 2011). Batik bat enpresa eta produkzioaren arloan lekutu bada ere, diseinu pentsamendua-ren metodoa gero eta gehiago ari da gizartearen eta berrikuntzaren arlo ezberdinetan garatzen, Tim Brown-ek (2010) dioen moduan «*nonprofits are beginning to use design thinking to develop better solutions to social problems*». Pertsonengan zentratutako metodoa da, eta fase ezberdinekin osatutako prozesu gisa egituratzen da: ulertu, definitu, sortu, prototipatu, balidatu eta zabaldtu (IDEO, d.g., Institut of Design at Stanford, d.g., Péché *et al.*, 2013, Zuberogoitia *et al.*, 2013.)

b. Prozedura metodologikoa

DiKomA proiektua hiru fasetan garatu da, hiru urtetan zehar. Hiru etapa horiek bat egiten dute Casals *et al.* (2001) eta Lowe (2001) autoreek ikerketa kooperatiboaren diseinuan definitu dituzten *co-situational*, *co-operational* eta *co-productional* faseekin, eta, bere baitan bildu dituzte diseinu pentsamendua-ren metodologiaren faseak. Etapak honako hauek izan dira: 1) Lehena, *DiKomA Oinarriak* (2012). Ulertu eta Definitu. Taldea osatu eta proiektua prestatu, pertzepzioak eta argumentuak bildu eta ekolinguistikari buruzko oinarritzko kontzeptuak lantzearen fasea. Fase horren emaitza nagusia *Kontzeptuen Corpusa* deitutakoa izan zen. 2) Bigarrena, *DiKomA Interbentzioa* (2013). Sortu eta Prototipatu. Kontzeptuen sozializaziorako baliabidea prestatu eta esku-hartze esperimentalaren fasea. Fase horren emaitza nagusia *EkoLingua Solas-jokoa* prototipoaren aurre-bertsioaren sorkuntza izan zen. 3) Hirugarrena, *DiKomA analisia eta proiektzioa* (2014). Balidatu eta Zabaldtu. Kontrastatu eta jokoa balidatu, emaitzen analisia eta balorazioak egin, eta produktua kaleratzearen fasea. Fase honen emaitza nagusia proiektutik sortutako azken produktua izan da: *EkoLingua Solas-jokoa*, bere *Gida* eta *Materialekin*.

1. Irudia: DiKomA Proiektuaren prozeduraren eskema



Ikerketa-interbentzioaren fase horietako bakoitzean analisiak egiteko, sorkuntza prozesuak sistematizatzeko, edota datuak biltzeko eta ebaluatzeko tresna eta baliabide metodologiko ezberdinak erabili dira.

Lehen faseko pertzepzio eta argumentazioen bilketarako hiru itemen inguruan egituraturako elkarrizketak eta talde-etzabaida erabili ziren. Lehen itema, asoziazio askea: orri zuri baten erdian idatzitako "Euskara Xxxx-en .." esaldi detonatzaileak elkarrizketatuari sortarazten zizkion burutazioak eta iritziak mapa mental moduan jasotzeko eta azaltzeko. Bigarren itema, espazioen errepresentazio grafikoa: herri estandar baten irudiaren gainean euskarak espazio ezberdinetan ustez hartzen duen lekua gometsen bidez irudikatzeko eta kokapen sozialari buruz egiten zuten interpretazioa azaltzeko. Eta laugarren itema, aurkako kasuen aurrean defentsa-argumentuak: aurkakotasun egoera irudikatzen zuten kasu batzuk emanda, egoera horretan euskara defendatzeko erabiltzen zituzten argumentuak jasotzeko.

Lehen eta bigarren faseko prototipo tailerretan brainstorming saioak, talde hausnarketa bideratuak, (bir)eraiketa kontzeptuala, edota eredu fisikoen eraikuntza moduko teknikak erabili ziren.

Bigarren eta hirugarren faseetan, sortutako tresna eta esku-hartzearen dinamikari buruzko balorazioak jasotzeko eta prozesuaren zein baliabide

bidearen ebaluazioa egin ahal izateko, bigarren fasean herrietako dinamizatzaileekin talde-eztabaida egituratuak egin ziren interbentzioaren aurretik eta ondoren, interbentzioan parte hartu zuten herritarrei galdesortak pasa zitzairen eta taldekako balorazio-orriak jaso ziren, eta hirugarren fasean, saio espezifikoetako partaide adituekin talde-eztabaida egituratuak egin ziren.

Egin ziren saioak eta horietan parte hartu zuten partaideen kopuruak izan ziren, lehen fasean 33 elkarrizketa eta talde-eztabaida bat, guztira 39 pertsona. Bigarren fasean, lau talde-eztabaida 34 partaiderekin interbentzioen aurretik, beste lau talde-eztabaida 20 partaiderekin interbentzioen ostean, eta galdetegia interbentzioetan parte hartu zuten 131 herritarrei. Hirugarren fasean, hiru talde-eztabaida 22 partaiderekin.

4. PROIEKTUAREN GARAPENA ETA EMAITZAK

I

a. Proiektuaren 1. Fasea (co-situational). Ulertu eta Definitu

DiKomA Oinarriak izenarekin identifikatu genuen lehen fasea, esan bezala, antolaketarako, prestakuntzarako eta hasierako diagnosi-analisirako fasea izan zen. Fase honetan emandako urrats nagusiak hiru izan ziren.

— **Lehen eta oinarrizko urratsa**, ikerketa-talde kooperatiboa eraikitzea (Garapen Taldea), taldeak proiektuaren proposamena bere egitea eta proiektuaren diseinua egokitzea eta antolatzea izan zen. Urrats honetan, idatzizko ideia-zaparraden teknika erabiliz, partaideek beren ideia eta kezka nagusiak azaldu zituzten, ondoren, multibotazio bidez ideia horiek lehentasunezko garrantziaren arabera sailkatu eta proiektuak azaldutako kezkengan izango zuen eragina baloratuz, proiektua ezauzgarrituko zuten arazo-ideia nagusiak identifikatu ziren. Honako hauek:

- Normalean euskaren aldeko direnengana iristen gara. Zirkulua zabaldu eta euskarak hotz uzten dituenengana (euskaldunak izan arren) eta are euskararen “kontra” edo daudenengana nola iritsi.
- Jendea jantzi beharra, ahalmentzearen aurreko urrats gisa edo. Nondik gatozen, zein den gure egoera, hizkuntza gutxitu bateko hiztun izatea zer den, zer esan nahi duen.
- Gure ondoan bizi diren ez euskaldunak guregana erakarri nahi baditugu diskurtso egokia(k) behar d(it)ugu.
- Helburu lorgarriak.
- Erdaldunekiko diskurtso falta.

- Herri euskaldunetan euskaldunen kontzientziazio falta.
- Gure helburua diskurtsoa komunitatean zabaltzea eta gero jendearengan eragitea izanik, kezka sortzen digu eragitera iriste horrek. Neurri batean ez dugu hain zail ikusten diskurtsoaren nolabaiteko onarpena lortzea (besteak beste politikoki zuzena delako) baina hortik eta jendearengan eragitera, koska handia dago

— **Bigarren urratsa**, proiektuan partaide ziren herrietan pertzepzio mailan euskararen kokapen/status sozialari buruzko diskurtsoen elementu nagusiak identifikatzeko eta komunitatean euskararen aldeko argumentazioa egituratzeko ahalmena nolakoa den ezagutzeko atariko lehen diagnosis egitea izan zen. Horretarako guztira 33 banakako elkarrizketa eta talde-elkarrizketa bat egin ziren. Elkarrizketa horietan hiru item erabili ziren herritarren pertzepzioak eta diskurtsoak jasotzeko: 1) asoziazio askeen bidez “Euskara herrian...” ideien mapa osatu, 2) herri baten irudiaren gainean euskarak hartzen dituen espazioen errepresentazio grafikoa eta interpretazioa egin, eta 3) balizko aurkako kasu batzuen aurrean euskararen defentsarako argumentuak eman.


Diagnostiko horrek emandako emaitza nagusiak laburbilduz, euskara zerekin lotzen zuten asoziazio askeko galderari dagokionez, elkarrizketatuen erantzunen kategorizazioaren mapak erakusten duenez (*ikus kategorizazio mapak 1. Eranskinean*), euskara balio positiboekin lotzen da lau herrietan (prestigioa, jendarte hobea, altxorra, harremanak, etorkizuna ..). Nortasun identitatearekin lotzen da baita ere hiru herri euskaldunetan, baina ez da lotura hori agertzen Erreterian. Komunitatean integratzeko sozializazioarekin ere lotzen da Zumaian eta Oñatin, baina ez neurri berean Bermeon eta are gutxiago Erreterian. Hainbat arrisku eta hutsunerekin ere lotzen da, eta etorkizunera begirako erronkekin ere lau herritan.

Euskarak herriaren mapan hartzen duen espazioaren errepresentazio grafikoari dagokionez, jasotako pertzepzioaren arabera aldea nabarrena agertzen da Erreteria eta beste hiru herrien artean euskarak merkataritzan eta udalean okupatzen duen espazioari buruzko pertzepzioari dagokionez. Beste hainbat espazioetan, berriz, plazan esate baterako, espazioaren okupazioaren antzeko pertzepzioa agertzen da lau herrietan.

Euskara zerekin lotzen zuten asoziazio askeko galderari dagokionez.

Nortasun identitatearekin lotzen da baita ere hiru herri euskaldunetan, baina ez da lotura hori agertzen Erreterian.

2. Irudia. Herritarren pertzepzioa hizkuntzen espazioez: mapa grafikoak



Azkenik, balizko kasu batzuei erantzunez elkarriketatuek euskararen defentsarako garatzen duten argumentazioaren analisiari dagokionez, herritarren diskurtsoetan erabilitako argudioak hainbat kategoriatan sailka daitezke. Gehien errepikatzen diren argudioak dira, lehenik eta behin 'euskal-izatea' gidoiarekin, 'bertakotasuna' edota 'naturaltasuna' kategorian nagusian bildu daitezkeenak. Horrekin batera, maiz agertzen den beste kategorian bat 'erantzukizuna' rekin eta 'ardura pertsonala' rekin du zerikusia. Modu partekatuan hartutako 'erabaki kolektiboa' ren indarra eta euskal hiztunaren 'eskubideak' ere agertzen dira argudio garrantzitsu gisa hiru herritan. Beste zentzu batean, defentsarenean baino gehiago eskaintzaren zentzuan, euskal hiztun ez den horri 'lagunduz ahalmentzea' 'arreta pertsonalizatua' eskaintzea eta 'aldebiko elkarriketak' sustatzea erabili dira argudioetan. Agertzen diren beste batzuk, berriz, 'aukera berdintasuna' ri, 'gehitzearen balioa' ri edota 'errespetua' ri egiten diete erreferentzia. Elkarriketa hauetan ia ez dira agertzen hizkuntza-ekologiarekin lortura duten kontzeptuen aipu zuzenak, 'subsidiaritatea' ren argudioa erabili duen kasuren bat salbu; aitzitik, bai ager-

tzen dira iraunkortasunarekiko ardurarekin erlaziona daitezkeen eta jada aipatu ditugun ‘erantzukizuna’ren eta ‘ardura pertsonala’ren argudioak.

— **Fase honetako hirugarren urratsa** hizkuntza-ekologiaren kontzeptuak lantzea eta gaiari buruzko oinarrizko *Corpus* bat osatzea izan zen. Horretarako, lehenik eta behin, proiektuaren Garapen Taldeko kideek, taldekako brainstorming teknika erabiliz, prestatzen ari zen *Corpus* horretan kontuan hartu beharko liratekeen ideia-gakoak identifikatzeko eta *Corpus* horren ondorengo sozializaziorako erabil zitezkeen baliabideak proposatzeko, analisi eta sorkuntza ariketa egin zuten. Ideia horiek afinitate-diagrama bidez sailkatu eta mapa batean jaso ziren. Ondoren, eta horiek guztiak kontuan hartuz, *Corpus*aren lehen zirriborroak prestatu eta horiei ekarpenak eginez, fase honen emaitza nagusia izan den *Corpus* horren azken txostena osatu zen, hau da, *Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren ideia nagusien bilketa: Materialen Corpusa* izeneko Txostena. Material honek, udalerrri mailan hizkuntza-komunitatearen trinkotzea edota ahalmentzea xede hartuta, hizkuntza ekologiaren ideia nagusiak biltzen ditu eta ideia horiek zer-nolako diskurtso-elementutan islatu daitezkeen zehazten dira; horrela, diskurtso mailan ahalik eta erabilera zuzenena izateko ideia-bilketa eta ideia horien diskurtso-elementuak eskaintzen dira.

b. Proiektuaren 2. Fasea (co-operational). Sortu eta Prototipatu


DiKomA Interbentzioa izenarekin identifikatu genuen bigarren fasea, hizkuntza-ekologiari buruzko kontzeptuen sozializaziorako baliabidea prestatzearen eta esku-hartze esperimentalaren fasea izan zen. Fase honen xedea, aurreko fasean prestatutako *Materialen Corpusaren* edukietatik abiatuta, herritarrek subjektu aktibo bihurtuz herritarren jabe-kuntza indartu nahi zuen esperientzia parte-hartzailea garatzea izan zen. Fase honetan emandako urrats nagusiak bi izan ziren.

Lehen urratsa, esku-hartzerako sistema eta tresna metodologikoak zehaztea, adostea eta egokitzea izan zen. *DiKomA* proiektuaren hasieran horrelakorik aurreikusten ez bazen ere, Garapen Taldeak egindako hausnarketa eta sorkuntza ariketen ondorioz, herrietako esku-hartze saioak bideratzeko tresna egokia kartak edota mahai-joko modukoren bat izan zitekeela ondorioztatu zen. Ideia hori abiapuntu, Garapen Taldeak *prototipo-tailerraren* lehen ariketa burutu zuen kartekin osatutako material batek eduki zitzakeen aukerak eta arriskuak aztertzeko eta karta-joko baten eredia irudikatzen.

**DiKomA
Interbentzioa.**

Fase honen xedea, herritarrak subjektu aktibo bihurtuz herritarren jabekuntza indartu nahi zuen esperientzia parte-hartzailea garatzea izan zen. Fase honetan emandako urrats nagusiak bi izan ziren.

3. Irudia. Karta-jokoaren eredua irudikatzeko prototipo-tailerraren eskema



Prototipo-tailer horretatik ez zen karta-jokoaren erabateko eredua diseinatzerik lortu, baina joko horrek har zezakeen dimentsioa eta eduki beharko lituzkeen ezaugarri nagusiak esplizitatu ziren. Ondoren, kontsulta eta araketa prozesu bat ireki zen material ludiko-didaktikoen produktoreekin iritziak jasotzeko edota merkatuan egon zitezkeen antzeko jokoak identifikatu eta aztertzeko. Horrela, eztabaida-joko gisako metodologia egituratu eta ludiko baten bidez gizarte eta zientzia alorreko eztabaidetan herritarren parte-hartzea sustatzea helburua duen Europa mailako *PlayDecide*³ proiektuaren berri izan ostean, *PlayDecide*-ren materialak eskuratu eta eredu horrekin eztabaida-joko berri bat sortzea erabaki zen. Jokoa osatzen duten elementu ezberdinak prestatu ziren, batzuk ikerketa taldean partekatutako sormen ariketa bidez eta, beste batzuk, aurreko fasean landutako *Materialen Corpuseko* edukiak sintetizatuz eta jokoaren karten neurrira egokituz. Horrekin, jokoaren lehen bertsioa osatu zen. Material horri *EkoLingua Solas-jokoa*⁴ izena eman zitzaion.

Fase honetako bigarren urratsa, lau herrietan —Bermeo, Errenteria, Oñati eta Zumaian— esperimentaziorako esku-hartze partehartzaile egikaritzea izan zen. Esperimentazioa hiru saiotan burutu zen, ondoko eskemaren prozedura jarraikiz:

1. Saioa. Herriko eragileak

Partaideak: Herriko 5/8 euskaltzale aktibo edo eragile.

Egitura: 1. Diskurtsoen inguruko ariketa: Planteatutako balizko kasu baten inguruko argumentazioak jaso.

2. *EkoLingua* jokoa azaldu: edukiak eta prozedura.

3. Jokoarekin saio bat burutu.

4. Jokoa baloraziorako talde-eztabaida egituratua egin: argumentuetan hobekuntzak, eraginkortasuna, aplikagarritasuna, moldaketa proposamenak...

Jasotako datuak: Diskurtsoaren argumentuak (Audio grabaketak). Partaideen balorazio-iritziak (Taldea-eztabaida egituratua, audioan grabatua).

2. Saioa. Herritarrak

Partaideak: Herriko 30/40 pertsona esanguratsu erakunde eta arlo ezberdinetan.

Egitura: 1. Aurkezpena eta jokoaren metodoaren azalpena egin.

2. *EkoLinguA* jokoaren 'jokaldi' bat burutu. Mahaietako dinamizatzaileak aurreko saioko herriko eragileak izan ziren.

3. Jokoa amaituta, mahai bakoitzean agertutako ideia eta burutzazioen azalpentxoak egin eta jaso.

4. Partaideei baloraziorako galdesorta pasa.

5. Eskerrak ematu eta agurtu.

Jasotako datuak: Partaideen balorazio-irritziak (Galdesorta).
Jokaldi-taldearen balorazioak (Balorazio-orria).

3. Saioa. Herriko eragileak

Partaideak: Lehen saioko herriko 5/8 euskaltzale aktibo edo eragileak.

Egitura: 1. Herritarrekin egindako saioetan jasotako datuen emaitzen azalpena.

2. Baloraziorako talde-eztabaida: helburuen lortze maila, jokoa apligarritasuna, prozeduraren egokitasuna, bestelako pertzepzioak...


3. Ondorioen sintesia.

Jasotako datuak: Partaideen balorazio-irritziak (Taldea-eztabaida egituratua, audioan grabatua).

Lehen saioan, herriko eragileekin, lau mahai osatu ziren, herri bakoitzean bana, guztira 34 partaiderekin. Saio horretan, partaideek geroko bigarren saioan jokoaren dinamizatzaile izateko formazioa jaso eta *EkoLinguA* prototipoa baloratu zuten *Focus Group* erako eztabaida egituratua. Focus-ean jasotako ondorio azpimarragarrienak honako hauek izan ziren: partaideak prest agertu ziren dinamizatzaile jarduteko, jokoaren ezaugarriak kontuan hartuz ludikoa baino gehiago hausnarketaren dinamizaziorako tresna gisa ikusten zuten, jokoaren aukeak nabarmendu eta balorazio positiboa egin zuten eta, horrekin batera, jokoa aldaketak egin beharra adierazi zuten, bereziki edukietan sinplifikatze aldera. Jokoaren eraginkortasunari buruz galdetuta, partaideek emandako balorazioaren batez bestekoa 3,04koa izan zen, 0 eta 5 bitarteko eskalan. Jasotako balorazio horietan oinarrituz, *EkoLinguA* jokoan moldaketa nabarmenak egin ziren edukiak sinplifikatzeko, eta horrela, 2. saioan erabili zen jokoaren prototipoaren 2. bertsioa osatu zen.

Bigarren saioan, herritarrekin, 19 mahai osatu ziren, bosna mahai Bermeon, Oñatin eta Zumaian eta lau mahai Errenterian, guztira 131 partaide, 76 emakume eta 55 gizon. Adinari dagokionez, partaideen % 7,4 hogeitaz azpiko gazteak izan ziren, % 5,3 hogeitaz eta hogeitaz hamar artekoak, % 46,8 hogeitaz hamar eta berrogeitaz hamar artekoak, eta % 40,4 berrogeitaz hamar urte baino gehiagoko helduak. Mahai batek gaztelaraz burutu zuen saioa, beste guztiak euskaraz aritu ziren. Jokaldiaren amaieran partaide guztiei jokoaren baloraziorako Likert erako 0 (bat ere ez ados) eta 5 (guztiz ados) bitarteko eskala zuen galdesorta bana pasa zitzaien. Ondoko grafikoan ikus daitezkeen moduan, partaideek baloratu zuten gustura aritu zirela 4,6ko batezbesteko puntuazioarekin, 4,5ekin interesgarria iruditu zitzaizela, 4,4rekin ongi antolatua egon zela, 4,0rekin jokoak balio zuela herritarrek euskararekin duten ikuspegia hobetzeko eta diskurtsoa indartzeko, 3,9rekin hizkuntza-ekologiaren gaian sakontzeko interesa piztu zitzaizela, 3,7rekin jokoak egin ostean aurretik baino argumentu hobeagoak zituztela, 3,7rekin jokoarekin gauza berriak ikasi zituztela iruditzen zitzaizela, eta azkenik, 2,6rekin jokoaren dinamizatzaile lana egitera animatuko liratekeela.

4. Irudia. Jokoari buruzko herritarren balorazioak: batezbestekoak




Balorazioen batezbestekoari ez ezik, emandako puntuazioen frekuentziari kasu eginez gero eta 4-5 puntuazio gorenean kokatzen zirenak kontuan hartuz, azpimarratzekoa da saioetan parte hartu zuten herritarren % 93,4 gustura aritu zela, % 87,1k ongi antolatua ikusi zuela eta

% 78,8rentzat interesgarria izan zela. Gainera, % 67,0rentzat baliagarria izan zen, eta % 57,3k argumentuak hobetu, % 53,8k ikasi eta % 65,6ri gaiari buruzko interesa piztu izana adierazi zuen. Partaideen % 28,4k, berriz, dinamizatzaile izateko adostasuna azaldu zuen. Bestalde, eta eskalaren beste muturrari kasu eginez gero, oso gutxi izan ziren 0-1 puntuazio baxuenean kokatu ziren herritarrak: % 2,2k adierazi zuen ez zuela ezer ikasi, % 3,4k ez zuela batere hobetu argumentuetan, eta % 1,1ri ez zitzaion joko baliagarri iruditu. Guztira, eta sailkapena beste modura eginez, eskalaren behe aldeko 0-1-2 puntuazioen artean soilik balorazioen % 10,9 agertzen dira; eskalaren goi aldeko 3-4-5 puntuazioen artean, berriz, partaideen balorazioen % 89,1.

Badirudi jokoak era guztietako herritarrengana heltzeko bidea irekitzen duela eta betiko formatuetatik haratago doala, berritzailea izanik.

5. Irdia. Jokoari buruzko herritarren balorazioak: puntuazioen frekuentziak %etan



Hirugarren saioan, herriko eragileekin, berriro herri bakoitzean mahai bana osatu zen, lehen saioan parte hartu eta gero bigarren saioan jokoa dinamizatzaile lanetan aritu ziren horiekin berberekin, guztira 20 kide elkartu ziren. Saio horretan partaideek herritarrekin egindako interbentzioen balorazioa egin zuten *Focus Group* moduko eztabaida egituratuan. *Focus* horien emaitzetan ikus daiteke dinamizatzaileak oro har bat zetozeala herritarrek egindako balorazio kuantitatibo zein kualitatiboekin. Ondorio azpimarragarrien gisa honako hauek aipa daitezke: dinamizatzaileak gustura aritu ziren, uste baino lasaiago edo hobeto eta hasierako beldurrak uxatuta. Herritar partaideen aldetik erantzun oso ona eta positiboa antzeman zuten, eta zentzu horretan aurretik egindako balorazio positiboa berretsi zuten. Jokoa potentzialta-


suna eta zabaltzen dituen aukerak nabarmendu zuten. Zentzu horretan, badirudi jokoak era guztietako herritarrengana heltzeko bidea irekitzen duela eta betiko formatuetatik haratago doala, berritzailea izanik. Azpimarratu zuten jokoak mahaian beste modu batean hitz egiteko atea irekitzen duela, hizkuntzaz hitz egiteko eta ez betiko topikoez, baita norberaren sentimenduez ere. Hori bai, jokoak badu halako exigentzia maila, ez da jolas hutsa. Eta posizionamenduen atalarekin arazoak egon ziren, ez baitziren ongi ulertzen. Beraz, fase honen amaiera gisa eta jasotako balorazio horietan oinarrituz, EkoLinguA jokoaren azken bertsioari begira jokoaren prozeduran zenbait aldaketa berri egitea aurreikusi eta bideratzen hasi ziren.

c. Proiektuaren 3. Fasea (co-productional). Balidatu eta zabaldu

DiKomA analisia eta proiektzioa izenarekin identifikatu genuen hirugarren eta azken fasea, sortutako baliabidea adituekin kontrastatzeko eta balidatzeko, EkoLinguA materialen azken bertsioa osatzeko, eta emaitzen azterketarekin ondorioak atera, txostena prestatu eta azken produktuari zabalkundea emateko fasea izan zen. Fase honen xedea, aurreko faseetan jasotako datuen eta interakzioan sortutako interpretazioen azken analisia gauzatzea eta ikerketari itxiera ematea, eta, esperimentatutako *EkoLinguA* tresna metodologikoa doitzea, osatzea eta eskuragarri jartzea izan zen. Fase honetan emandako urrats nagusiak bi izan ziren.

Lehen urratsean, aurreko faseetan sortu eta interbentzioan erabilitako *EkoLinguA solas-jokoa* materialaren balidaziorako hiru kontraste-saio burutu ziren normalkuntzan lan egiten duten hiru erakundetako teknikariek: *Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzako, UEMA - Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko* eta *Ikastolen Elkarteko* teknikariek. Hiru mahaietan guztira 22 teknikari aritu ziren jokoaren saio bana burutzen. Jokoaren amaieran tresnaren eraginkortasunari buruz galde-tuta, partaideek emandako balorazioaren batez bestekoa 3,4koa izan zen, 0 eta 5 bitarteko eskalan. Emandako puntuazioen frekuentziari begiratu gero, teknikarien balorazioen % 90,9 hiru eta lau puntuazioen tartean kokatu ziren, eta beste % 9,1 bat eta bi puntuazioen tartean. Balorazio horiek bat zetozen aurretik dinamizatzaileek eta herritarrek emandakoekin.

6. Irudia. Jokoaren eraginkortasunaz dinamizataile, herritar eta teknikarien balorazioak, frekuentziak %etan



Balorazio kualitatiboetan teknikariek *EkoLinguA* tresna metodologikoaren erabilgarritasun eta potentzialitatea baieztatzearekin batera, joko hobetzeko egokitzapen batzuk proposatu zituzten, karta batzuen testuetan, jokoaren egituraren eztabaidaren haria indartze aldera, eta jokoaren emaitzak jasotzeko fitxen osaketan. Proposamen hauek jaso eta jokoari moldaketak egin zitzaizkion, *EkoLinguA Solas-jokoaren* azken bertsioa osatuz.

Fase honetako bigarren urratsean, *EkoLinguA* tresna isolatu gisa ez ezik, normalkuntza programen testuinguru zabalagoetan nola kokatu aztertu eta material osoaren gidaren ezaugarriak zehaztu ziren. Horretarako, Garapen Taldeak *prototipo-tailerraren* bigarren ariketa burutu zuen, *EkoLinguA* tresna metodologikoaren proiektzioa irudikatuz eta programa molde ezberdinetan txertatzeko sekuentzia-ereduak izan zitezkeenak perfilatuz. Material horrekin jokoaren Gida osatu zen. Ondoren, txostenak prestatu, materialak argitaratu eta proiektuaren amaiera eman zitzaion. Fase honen emaitza izan ziren *EkoLinguA Solas-jokoaren* azken bertsioa eta *EkoLinguA Solas-jokoaren Gida*.

5. PROIEKTUAREN EMAITZA NAGUSIA: “EKOLINGUA SOLAS-JOKOA”

I
DiKomA Proiektuaren emaitza nagusia *EkoLinguA Solas-jokoa* izena hartu duen mahai-jokoa izan da. Joko hau, hizkuntza-ekologiaren ezagu-

**Jokoaren egitura
eta prozedura
metodologikoa
Europako
Komisioak
sortutako
PlayDecide
eztabaida-
jokoaren eredu
oinarrizten da.
PlayDecide eredu
horren helburu
orokorra gizarte
eta zientzia
alorreko gai
zehatzen
inguruan
herritarren
parte-hartzea
sustatzea eta
iritzi desberdinak
dituzten
pertsonen arteko
gizarte mailako
hausnarketak,
arrazoitzeak eta
eztabaidak
erraztea da.**

tzan oinarrituta elkarrizketak pizteko, arrazoibideak lantzeko eta herritarrak argudio berriez jabetzeko tresna da; solasaldi ireki eta antolatua ahalbideratzeko mahai-joko gisa egituratu den eskuhartze-tresna ludikoa.

EkoLingua Solas-jokoak osagarri ditu DiKomA Proiektuaren emaitza ere izan diren beste bi elementu edota dokumentuk: 1) jokoaren eduki kontzeptualak osatu eta gorpuzteko baliatu den hizkuntzen ekologiari buruzko *Corpus teoriko-kontzeptual* egokitua, eta 2) *EkoLingua* solas-jokoa esku-hartze programetan txertatzeko eta bere aplikazioan laguntzeko prestatu den *Jokoaren Gida*.

Jokoaren egitura eta prozedura metodologikoa Europako Komisioak sortutako **PlayDecide**⁵ eztabaida-jokoaren eredu oinarritzen da. PlayDecide eredu horren helburu orokorra gizarte eta zientzia alorreko gai zehatzen inguruan herritarren parte-hartzea sustatzea eta iritzi desberdinak dituzten pertsonen arteko gizarte mailako hausnarketak, arrazoitzeak eta eztabaidak erraztea da.

EkoLingua solas-jokoan hizkuntza ekologiarekin zentzu zabalean eta diskurtsoaren ahalmentzearekin erlazionaturiko oinarritzko kontzeptuak, argibideak, galderak edota erronkak jasotzen dira, eta dinamizatzailer batek gidatutako mahai-joko antzeko batean 6-8 pertsonekin osatutako taldeetan bertan elkartutakoek elkarrekintzan gai horietan jantzi, eztabaidatu eta pentsamendu kolektiboan sakontzea ahalbidertzen du.

EkoLingua zabaltzeko eta egokitzeko *creative commons* baimena duen erabilera libreko materiala da eta sarean aurki daiteke⁶. Bertan eskura daiteke jokoaren kit-a, berau erabiltzeko behar diren elementu guztiakin: argibideak, jokalarientzako mahai-tapiza, kolore ezberdinetako papere-tan inprimatzeko kartak (15 istorio-karta zurian, 25 informazio-karta berdean, 24 eztabaida-karta urdinean, 16 erronka-karta laranja, karta horiak eta karta zuriak), jokaldi-orriaren fitxa eta proposamen/konpromisoen orriaren fitxa.

Jokoa dinamizatzailer batek gidatzen du, berak azaltzen die argibideak jokalariei eta bideratzen du saioa. Jokoaren iraupena 80/90 minutukoa izango da, 30 minutuko hiru zatitan banatua. Jokoaren prozeduraren xedea, amaieran partaideen artean elkarrekin osatu eta adostutako ahalik eta jokaldi gehien lortzea izango da: *Jokoa bai? Zenbat?* Jokoak hiru buelta ditu:

Lehenengo buelta: Irakurri eta azaldu. Hasteko, jokalaria guztiek mahai-tapizean agertzen den “*Zer da hizkuntza-ekologia*” testu laburra irakurriko dute, eta aukera izango dute sortzen zaizkien burutazioak tapizaren ‘*hasierako pentsamenduak*’ tokian idazteko. Ondoren kartak banatu, irakurri eta azaldu egin behar dira.

- a) Dinamizatzaileak *Istorioen* bina karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak bat aukeratu behar du, jasotakoetatik deskartea eginez, sobratuetakoetatik aukeratuz edota kideren batekin trukaturaz. Aukeratutakoa mahai-tapizean jarri eta jarraian bakoitzak berea irakurri eta besteei azaldu behar die.
- b) Ondoren, dinamizatzaileak *Informazio* izeneko hiruna karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak bi aukeratu behar ditu, deskartea eginez edota trukaturaz, eta mahai-tapizean jarri. Jarraian bakoitzak karta bana irakurri eta besteei azaldu behar die, baina (eta hau araua da) beti ere aurreko istorioetan agertutakoekin lotura eginez.
- c) Azkenik, dinamizatzaileak *Eztabaidagaia* izeneko hiruna karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak bi aukeratu behar ditu, deskartea eginez edota trukaturaz, eta mahai-tapizean jarri. Jarraian bakoitzak karta bana irakurri eta besteei azaldu behar die, baina beti ere aurreko istorio eta informazioetan agertutakoekin lotura eginez.

Bigarren buelta: Solas egin eta eztabaidatu. Jokalariak kartetan ateratakoarekin solas egin, eztabaidatu eta kartekin multzoak egin behar dituzte. Solasaldia irekitzeko modu bat baino gehiago dago, ‘eztabaida askea’ izan daiteke edota ‘txandaka’ hitz egiten hasiz. Eztabaidan zehar guztiek saiatu behar dute arauak errespetatzen (bestela, txartel horiak erabil daitezke). Eztabaida moteltzen bada, ‘erronka-txartelek’ erraztu dezakete bidea. Behin solasaldia abiatu ondoren:

- a) Jokalariak **kartak erabili** behar dituzte iritziak ematerakoan, beren argumentuak kartekin lotuz. Norberaren kartak, besteenak edota deskartean mahaian utzitako kartak erabili ditzakete
- b) Jokalariak beren argumentuekin batera erabiliko dituzten kartak mahaira bota eta pilatu behar dituzte, eta antzeko ikuspuntua edo gaia dutenekin karta-multzoak edo **familiak** osatzen hasi. Txartel-mota guztiak erabil daitezke familia bat egiteko: istorioak, informazioak, eztabaidagaiak, zuriak ..

Hirugarren buelta: Jokoa bai? Jokalariak taldearen erantzun bateratua adosten eta jokaldiak (*Jokoa bai?*) osatzen saiatu behar dute

- a) Aurreko bueltan eztabaidan zehar mahaian osatu dituzten **kar-**

Proiektuaren emaitza izan den EkoLinguA Solas-jokoa oso ongi baloratua izan da baliabide gisa. Potentzial handia ikusten zaio bereziki elkarrizketa ordenatuak eta esanguratsuak modu lasai eta era erosoan ahalbideratzeko. Bizipen edota estilo ezberdinak eduki dezaketen pertsonak elkartzeko eta euren artean gatazkan erori gabe, hizkuntzei buruz instrospekzioa egin, ideiak partekatu eta hausnarketan sakontzeko. Edota posizio ezberdinen arteko elkarrizketak bideratzeko.

ta-familiak adostu (gutxienez bat) eta bakoitzari dagokion gaiaren arabera izen bat jarri. Horietako bakoitza **jokaldi** bat izango da.

b) Jokaldi bakoitzarekin **Jokaldi-orri** bana bete. Bertan jokaldiaren izena, jokaldia osatzen duten kartak eta jokaldiaren ondorioak bilduko dira.

Testuinguruaren arabera, jokoak beste urrats bat gehiago izan dezake. Horrela, eztabaidan hitz egindakoak eta Jokaldietan adostutakoak kontuan hartuz, aukerako urratsa izan daiteke jokalariek bere inguruan bideratzeko proposamenak edota konpromiso moduak luzatzea eta “Proposamenen eta Konpromisoen Orrian” jasotzea. Jokoa amaitzen da bertan agertu diren jokaldiak eta ideiak edo proposamenak partaide guztien artean partekatuz.

6. ONDORIOAK

I Kontuan hartuz DiKomA proiektuan finkatutako helburuak, jasotako emaitzen ondorio gisa esan dezakegu ikerketaren helburuak erdietsi egin direla neurri handi batean. Hau da, hiztun komunitatearen pertzepzio eta diskurtso-ahalmenari buruzko lehen hurbilketa egin da. Hizkuntzen ekologiari buruzko corpus teoriko-kontzeptual egokitu osatu da. Esku-hartzea ahalbideratzeko diseinu metodologikoa prestatu da, EkoLinguA izena hartu duen baliabide espezifikoak sortu da eta, egikaritu ondoren, material hori balioztatu da. Eta, azkenik, parte-hartzaileen pertzepzio eta diskurtso baliabideetan izandako eragina eba-luatu da.

Proiektuaren emaitza izan den *EkoLinguA Solas-jokoa* oso ongi baloratu izan da baliabide gisa. Potentzial handia ikusten zaio bereziki elkarrizketa ordenatuak eta esanguratsuak modu lasai eta era erosoan ahalbideratzeko. Bizipen edota estilo ezberdinak eduki dezaketen pertsonak elkartzeko eta euren artean gatazkan erori gabe, hizkuntzei buruz instrospekzioa egin, ideiak partekatu eta hausnarketan sakontzeko. Edota posizio ezberdinen arteko elkarrizketak bideratzeko.

Bestalde, jasotako datu eta balorazioen arabera, esan daiteke proiektuaren xede nagusia zen *hizkuntza-ekologiaren ezagutza hedatuz diskurtso berri(ndar)tu bat sozializatzea* ez dela erabat bete. Sortutako baliabidearekin egindako interbentzioek ez dute bere horretan partaideen diskurtsoetan argumentu berriak sendotasunez bereganatzeko aukera eman. Bai ordea solas espazioetan aritzeko normalean hitz egiten ez den moduan hitz egiteko, hizkuntza-ekologiarekin lotzen diren beste argu-

mentu eta ideiak ere badaudela ikusteko, horretaz jabetzeko, aurretik eduki ditzaketan argumentuak indartzen laguntzeko, eta horiekiko interesa ere pizteko.

Zentzu horretan, esan daiteke frogatutzat gelditzen dela *EkoLinguA Solas-jokoak* hizkuntza-komunitatea diskurtso mailan ahalmentzen laguntzeko duen balioa edo erabilgarritasuna kolektibo desberdinei begira, dela gaiarekiko lehen hurbilketa egiteko, dela herritar aktiboak edota hizkuntza eragileak trebatzeko. ●

OHARRAK

1. Ikastaroan egindako hainbat hitzaldiren testuak (ikus Marko, Sarasua, Uranga, 2011) BAT – Soziolinguistika Aldizkarian argitaratu ziren beste zenbait lanekin batera 2011ko 81(4) zenbakian hizkuntza-ekologiari buruzko monografikoan.
2. Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra, UPV/EHU, Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Zumaiako Udala, Errenteriako Udala, Oñatiko Udala, Bermeoko Udala. Aholkulariak: Iñigo Arteatx (HUHEZI), Iñaki Martínez de Luna (EHU), Mikel Irizar (Komunikabideetan aditua) eta Oihan Moragues (parte-hartze teknikaria).
3. <http://www.playdecide.eu/>
4. EkoLinguA: Ekologia Linguistikoarekin Ahalmentzen
5. <http://www.playdecide.eu/>
6. <http://www.soziolinguistika.eus/DiKomA> - <https://goo.gl/PDWTa9> - <http://www.playdecide.eu/getinvolved/projects/166764>

BIBLIOGRAFIA

- Bastardas, A. (2005). *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Barcelona: Angle Editorial
- (2009). Vint-i-cinc anys de política i planificació lingüístiques. *Revista de Llengua i Dret* [Barcelona: Generalitat de Catalunya], n° 51, 125-132.
- (2011). Ekologiatik hizkuntza-iraunkortasunera: marko teorikotik proposamen praktikoetara. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 11-22
- Bausela, E. (2003). La investigación cooperativa, una modalidad de la investigación-acción. *Revista de Psicodidáctica*, 15-16, 121-130.
- Brown, T. , Wyatt, J. (2010). Design Thinking for Social Innovation. *Stanford Social Innovation Review*, winter 2010. http://ssir.org/articles/entry/design_thinking_for_social_innovation
- Calvet, L.J. (1999). *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- Couto, H.H. (2007). *Ecolinguística - estudo das relações entre língua e meio ambiente*. Brasília: Thesaurus Editora.
- (2009) *Linguística, Ecologia e Ecolinguística*. São Paulo: Contexto.
- Creese, E., et.al. (ed.), (2008). *Encyclopedia of Language and Education*, 2nd Edition, Volume 9: Ecology of Language, 41–52. New York: Springer Science+Business Media LLC.

- Desgagné, S. (1997). Le concept de recherche collaborative: l'idée d'un rapprochement entre chercheurs universitaires et praticiens enseignants. *Revue des sciences de l'éducation*, 2, 371-393.
- Fill, A. (2001). "Ecolinguistics: State of the art 1998". In, Alwin Fill & Peter Mühlhäusler (ed.) *The ecolinguistics reader: language, ecology and environment*. Londres: Continuum, 43-53
- Haugen, E. (1972). *The ecology of language*. Stanford: Stanford University Press
- Heron, J. (1996). *Co-operative Inquiry. Rehears into the Human Condition*. London: Sage Publications.
- IDEO (d.g.). *Design Thinking para Educadores*. <http://www.designthinkingforeducators.com/>
- Institut of Design at Stanford (d.g.). *Mini guía: una introducción al Design Thinking*. <https://dschool.stanford.edu/groups/designresources/wiki/31fbd/attachments/027aa/GU%C3%8DA%20DEL%20ROCESO%20CREATIVO.pdf>
- Erlandson, D., Harris, E. (1993). *Doing naturalistic inquiry*. London: Sage Publications
- Ferrero, G. (2003). *De los proyectos de cooperación a los procesos de desarrollo*. Argitaratu gabeko Doktoradutza-tesia, Universidad Politecnica de Valencia, Valencia.
- Lechevrel, N. (2008). «L'ecolinguistique: une discipline émergente?» *RELQ/QSJL*, vol. 3, n°1, 16-38
- Mackey, W.F. (1976). *Bilinguisme et contact de langues*. Paris: Editions Klincksieck.
- (1994). «La ecología de las sociedades multilingües». In, Albert Bastardas y Emili Boix (eds.) *¿Un estado, una lengua? La organización política de la diversidad lingüística* (pp. 25-54). Barcelona: Ediciones Octaedro
- Marko, I. (2011). Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna hizkuntza-ekologiaren parametroetan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 53-64
- Marko, I., Uranga, B. (2011). Hizkuntza-ekologia Euskal Herrian gaur egun, eragileen ikuspegia. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 107-122
- (2014). Sobre la ecología lingüística en el País Vasco: visión de los agentes sociales. *Revista de Lengua i Dret*, 62, 73-85.
- Mendizabal, N. (2006). Los componentes del diseño flexible en la investigación cualitativa. In, I. Vasilachis de Gialdino (Arg.), *Estrategias de investigación cualitativa (65-105)*. Barcelona: Gedisa SA
- Mühlhäusler, P. (2003). *Language of Environment: Environment of Language: A Course in Ecolinguistics*. London: Bettlebridge

- Péché, J.P et al. (2013). Design Thinking: le design en tant que management de project. *Entreprendre & Innover*, 2013/3, (19), 9-20. <http://www.cairn.info/revue-entreprendre-et-innover-2013-3-page-9.htm>
- Reason, P. (1999). Integrating Action and Reflection Through Co-operative Inquiry. *Management Learning*, 30(2), 207-226
- Resinger, H. (2006). *Lengua, ecología e interculturalidad: el papel de la persona entre las convenciones y la concienciación*. Tesis Doctoral, UAB. <http://www.tdx.cat/handle/10803/5269> (2014ko ekaina)
- Sandín, M.P. (2010). *Investigación cualitativa en educación. Fundamentos y tradiciones*. Madrid: McGraw-Hill, 2010
- Sarasua, J. (2011). Egungo norabide batzuk eta hizkuntzen ikuspegi ekologikoa. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 123-144
- Steffensen, S.V.; Fill, A. (2014). «Ecolinguistics: the state of the art and future horizons». *Language Sciences*, n° 41, 6-25
- Thoring, K. & Müller, R.M. (2011). Understanding Design Thinking: A Process Model based on Method Engineering. In, A. Kovacevic et.al. (ed.), *DS 69: Proceedings of E&PDE 2011, the 13th International Conference on Engineering and Product Design Education, London, UK, 08.-09.09.2011*. <https://goo.gl/dM1Ipz>
- Uranga, B. (2011). Ekologia biologikoa eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 25-52
- (2011). Mahai-ingurua: hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren onurak eta zailtasunak . *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 145-163
- Zuberogoitia, A., Arana, G., Bidegain, E. (2013). Sormena, berrikuntza eta Komunikazio ikasketak: Design Thinking eta Creation Nets metodologiak aukerak aztertzen. *TANTAK Aldizkaria*, 25 (1), 85-104.

ERANSKINAK

Eranskina: Herritarren pertzeptzioa euskarari buruz. Kategorizazioa mmapi-en

